

# ANTZUOLA HERRI ESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA: IKASLE-OHIEN BIZIPENAK ETA EUREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO GAKO PEDAGOGIKOAK

**Maitane Basasoro Ziganda**

maitane.basasoro@ehu.eus

Euskal Herriko Unibertsitatea - Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

- ✓ Ikasleen parte-hartzea: teoria eta praktikaren arteko desoreka.
- ✓ Eskola demokratikoa: eguneroko praktikatzea eta bititza ezinbestekoa.

Hezkuntzako "alternatiba sozialetan" aurrera egin nahi badugu, hezkuntza proiektu berritzaile eta eraldatzaileen praktikak berrikusi behar ditugu.

Bide horretan... **Antzuola Herri Eskola**

## Antzuola Herri Eskola

- ✓ Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa
- ✓ 80ko hamarkada: hezkuntza proiektu berri baten hasiera
- ✓ Proiektu berritzaile gisa definitua, eta Hezkuntza Sailak zein emaitzek hala berretsia
- ✓ Ikasleek aukeratutako proiektu globalak ardatz

## Emaitzak

*"Norbanakoaren garapenean asko laguntzen duen hezkuntza eredu da. Eta nire ustez, hori da garrantzitsuena. Haurrari haur izaten uzten zaio; eta hala, pertsona moduan garatzen da. Oinarria hori denean, umea erabakiak hartzeko geroz eta prestatuago dago; hegan egiten hasten da. Eta hori da hezkuntza-eredu batek eman dezakeen gauzarik politena"*  
(Antzuolako ikasle-ohia).

**Abiapuntua:** Ikasleek hautatutako proiektu globalak.

## Nola?

- ✓ Ikerketaren eta esperimentazioaren bidez.
- ✓ Talde lanean, modu demokratikoan, harreman horizontalak oinarritzat hartuta.
- ✓ Erantzun anitzak jasotzeko eta akatsa modu positiboan ikusteko hizkuntzaren zainduz.
- ✓ Askatasunez mugituz.
- ✓ Komunitatearekin elkarlanean, herritar kontziente eta kritiko gisa garatzeko.

## Helburuak

- ✓ Antzuola Herri Eskolako ikasle-ohien ikasketa ibilbideak, esperientziak eta gogoetak jasotzea
- ✓ Antzuola Herri Eskolan ikasleen parte-hartzea zein gakok ahalbidetzen eta sustatzen duten identifikatzea eta horiek egunerokoan zein forma hartzen duten deskribatzea

## Ikerketa etnografikoa

- ✓ 1974-2001 tarteko ikasle-ohiekin 28 talde eztabaida
- ✓ Irakasle eta irakasle-ohiekin talde eztabaida bat
- ✓ Dokumentazioa
- ✓ Behaketak



## Ondorioak

- ✓ Ondo pasa eta ikasi: elkarrekin joan daitezkeen prozesuak.
- ✓ Jakin-minak eta interesak ardatz, ezagutza zentzu batekin eta errealitatearekin harremanetan eraiki.
- ✓ Ikasleak parte-hartzaile aktibo kontsideratzen dute beren burua eta haien inplikazioak eragina du egunerokoan.

Eredu honen bitartez, ikasleak orainaldiko herritar aktibo bihurtzen dira, ez dira etorkizuneko proiektu bezala irudikatzen. Honenbestez, gizarte demokratiko eta justuago bat lortzeko ekarpena egiten da.

- ✓ Eskola demokratikoak eraikitzeko eta ikasleen parte-hartzea sustatzeko, irakasleen begiradan, curriculumean eta antolaketan aldaketa eman beharra.